

“Kerja” - Balorezko proposamena

Askotan ikasleek lan egiteko motibazioa dute, baina ez dute lanposturik eskuragarri. Hau da, enpresa gehienek 18 urte baino gehiagoko langileak nahiago dituzte edo gazteentzako ezinezkoak diren baldintzak eskatzen dituzte, adibidez, gidatzeko baimena edo lan eskarmentua. Gainera, familia batzuetan diru beharra dagoenez, gazteak lan egitea beharrezko da haientzat.

Horrenbestez, Kerjak arazo hauek konpontzeko helburua du, laguntza ekonomikoa eta lan esperientzia eskainiz.

Beste alde batetik, Kerjak partikularrei (familiak, adineko pertsonak,...) langile gazteak eskaintzen die. Horrela, partikularren beharrak asetuko dira, gazte bakoitzaren trebetasunen arabera. Esaterako, irakasle-partikular bat lortu daiteke app-aren bitartez zailtasunik gabe, gazte batek irakasten trebea dela iragarri duelako. Izan ere, partikularrek behar dituzten langileak ez dira ohikoak, lan puntualak eta lan-ordu gutxikoak direlako (bezeroaren beharretara egokitzeko).

Gainera, saltoki txikien arduradunak lanaldi murriztuko lanpostuak inguruko gazteei eskaintzeko aukera emango die gure proiektuak.